

Agurra

URRUTIA, Andres
Euskaltzainburua

Agintariok,
Euskaltzainok,
Mauleko auzapeza eta zinegotziok,
«Battittu» Coyosen etxekook,
Jaun-andreok,
Egun on,

Berrikitan etorri zait eskura Paben 1692. urtean argitaraturiko testua. Zuetariko askok aspalditk ezagutzen duzue. Titulua: Zuberoako ohitura edo lege nagusia. Testuaren hizkuntza nagusia biarnesa. Hasierako oharra frantsesez egina eta tartean martean, euskarazko hitzak, hainbat artikulutan ageriko direnak, garai bateko zuberoako erakundeak zirenak: kaiolar, zaingoa...

Testuaren argitarazleak honetara zehazten zuen euskararen estatusa: herriaren hizkuntza zela esaten zuen, esan ere. Horrek beste galdera bat egite-
ra eramaten gaitu, hain zuzen ere, hiru mende geroago, kontuek hala jarraitzen duten ala ez galdetzera.

Orduko hartan biarnesa zen goi mailako hizkuntza, legeetan erabiltzen zena. Euskara, aldiz, gizarte osora hedatua eta zabaldua, hizkera mintzatua-
ren gisan.

Galdetu diezigun , bada, geure buruari, hiru mende geroago, ia gauza bera gertatzen den. Biarnesaren ordeztu, egun frantsesa da nagusi legeetan eta goi

mailako erabileran, euskara, berriz, lehen oro mintzatua zena, eskas eta urri dabil gure ezpainetan.

Bazen garai hartako zuberoarren artean lege hori maisuki aztertu zuena. Jakes Belakoa legelaria protestanta. Jakituria handiko gizona izanik, berak idatziriko tabletak eta iruzkinak egoki erakusten dute orduko zuberoaren giroa.

Lehen hala, orain hula, gero, ez dakit nola, halakoa izan zen belatarren goiburua. Halakoa ere geurea, lehengoa aintzakotzat hartzen duena, oraingoa lantzen duena eta gerokoa eskuratu behar duena, asmoz eta gogoz.

Gerogarren horren esperantzan, fermuki hartzen dugu egun Euskaltzaindian, euskararen akademian, Battittu Coyos zuberoarra, jakin badakigulako geure zeregina ez ezik, euskalgintza osoaren egitekoak ere berrindatzera datorrela.

Berrindartze horren barruan, aspalditik erakutsi du Coyosek kezka bizia euskararen baitan, nahiz hizkuntzalaritzan nahiz soziolinguistikoan, hizkuntza bera eta hizkuntzaren gizarte arloa aintzat hartu dituelako bere ahaleginetan. Ezagunak dira, halaber, bere zuberoar erroak eta horretara, bi zuberoar adixkide kausituko ditu akademian, hain juxtu ere, berori gure artera ekarri dutenak, Txomin Peillen eta Jean Louis Davant.

Bai eurok eta bai beste euskaltzainok ere ongi etorria ematen diogu gurekin batera eguneroko lanean, akademiaren barruan, euskararen mesedetan arituko den euskaltzain oso berriari.

Goresmenak eta zorionak Coyosen etxekoei eta orain joan daitezela Xarles Bidegain azken euskaltzain oso izendatua eta Jean Louis Davant, euskaltzain oso berriaren proposatzailea, Battittu Coyosen bila eta ekar dezaten gure artera, sarrera-hitzaldia egin dezan.